


Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Hastapenetako rock-and-rola eta bluesa euskaraz

50eko hamarkadako rock-and-rollaren sustraiak arakatu eta AEBetako hastapenetako bluesa gure artera ekarri duen hirukotea Nafarroako iparraldetik dator, musikarien harrobi itzela den Beratik. Hiru anaia tradizioa berreskuratu nahian. Bost kantu batu dituzte lan honetan, guztiak euskaraz, baina AEBetako tradizio zaharrenaren parera ahoskatuta. Are gehiago, antzinako taldeen soinua lortu dute, Berako Mik estudioan instrumentu eta anplifikagailu zaharrak erabilia. Emaitzari beraiek bluesa deitzen dioten arren, tarteka Crypt diskoetxearen edota indarrean dagoen Reining Sound taldearen antza ere badute; hau da, rock-and-roll primitibo azkar eta gordina, gitarra eta bateria oso markatuekin, hain zuzen ere. Horrez gain, arimaz betetako blues kantak ere idatzi dituzte.



On Benito

On Benito

AUTOEKOIZPENA

Iraupena: 17'14"
6 euro

ON BENITO

«Bluesa euskaraz egin daitekeela jakiteak poza emango lioke Bitoriano Gandiagari»

Aurretik musika esparruan denetarik egin duzue, baina zer dela-eta hasi zarete horrelako doinu primitiboekin?

Bluesa beti izan dugu presente, baina beti nahiko jorratzeko. Bestalde, musika mota hau oso oinarritzkoa da eta sofistikazioak ez dio sobera onik egiten; proiektuak zerbait primitiboa izan behar zuela argi genuen.

Zer esango luke Bitoriano Gandiagak burua altxatuz gero, bere testuekin idatzitako rock-and-rollak entzungo balitu?

Sorpres hartuko luke seguruenik. Hala ere, diotenarengatik Gandiagak nahiko gizon irekia dirudi. Bluesa euskaraz egin daitekeela jakiteak poza emango ziola uste dugu.

Nor da Fatema Rakei?

Irango idazle bat. Berria egunkaritik ezagutu genuen eta haren idazteko modua gustuko dugunez, *Distantzia* izeneko letra aukeratu genuen.

Zerk batzen zaituzte On Benito osatzen duzuen musikariak?

Anaiak izateak batzen gaitu, baina oso garrantzitsua da amak erakutsitako musikarekiko maitasuna ere, gure arteko bestelako lotura sortu du.

Hiru minututan dago rock-and-roll abesti on baten muga? Ez da gehiago behar?

Iraupena ez da nahita izan, eta muga... ez dugu mugetan sobera sinesten. Hala ere, egia da rock-and-roll kantaren formatua labur samarra eta zuzena denean dugula gustuko. Soinu zaharra eta aldi berean ona lortu duzue bi egun eskasetan...

Gitarren tratamenduan oso argi dugu soinua; eta anplifikagailu eta gitarra zaharrak erabiltzea gustatzen zaigu hori lortzeko. Bestalde, bi egunetan grabatu eta nahastua egoteko Maiketek lan polita egin du.

Abesteko eta ahoskatzeko eran ez dirudi euskara denik... Agian, ez gaudelako ohituta halako sonoritatea euskaraz entzuten?

Ez zara aipatzen duen lehenengoa eta egia esan guri natural atera zaigu ahoskatzeko modua. Ohitura falta arrazoi bat izan daiteke.

